

HARREMANAK

Gure enpresak Vitoriako eta inguruko herrietan argi solar sistemak jartzen ditu, gauetan argitasuna emateko eta energiaren kontsumoa murrizteko. Horrelako proiektuetan, bezeroekin izango dugun harremana oso garrantzitsua da, bakoitzak bere beharrak dituelako eta guk benetan lagundu nahi diegulako.

Alde batetik, webgune edo plataforma eroso bat izango dugu, bezeroek informazioa lasai bilatu ahal izateko. Bertan argi guztiak nola funtzionatzen duten ikusi, aurrekontuak eskatu edo beraien proiektuaren egoera kontsultatu ahal izango dute. Horrela, ez dute zertan gure bulegora etorri edo telefonoa hartu zerbait galdetzeko. Gainera, autozerbitzu honek dena errazten du: gauza batzuk bezeroak bere kabuz egin ditzake eta guk ere denbora hobeto antolatzen dugu.

Baina noski, ez gara automatizaziora soilik mugatuko. Udalekin, herri txikiekin eta gurekin konfiantza hartu nahi duten beste bezeroekin harreman hurbil eta pertsonala izango dugu. Askotan, ez dakite zein argi mota komeni zaien edo nola antolatu instalazioa, eta hortxe sartzen gara gu laguntza, iradokizunak, proiektuaren diseinua, eta beharrezkoa den guztia eskaintzen. Helburua da bezeroa bakarrik ez sentitzea eta prozesu guztian lagunduta egotea.

Azkenean, argi solarrak hobetzea guztion artean egingo dugun zerbait da, eta ko-sorkuntza horrek proiektua bizirik eta eguneratuta mantenduko du.